

IKERKETA

LABURPEN EXEKUTIBOA

Emakumeen parte-hartzea
memoriaren eraikuntzan, Euskadiko
eta Guatemalako esperientziak.

2024ko Urtarrila

Egilea: JONE OTERO MARTINEZ

www.borborka.com



baketik



borborka



LANKIDETZARAKO ETA
ELKARTASUNERAKO
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN Y
SOLIDARIDAD

Sarrera

Emakumeen memoriaren narratibak ikusgai egiten laguntzea da Mugen Gaietik eta Baketik erakundeek bultzatzen duten argitalpen berri honen helburua. Izan ere, munduaren luze-zabaletara, emakumeek elkarrekin topatzeko, giza eskubideen urraketak ikusgai egiteko eta bide eta zubi berriak eraikitzeke moduak bultzatu dituzte. Ikerketa honen bi fokuk Guatemala eta Euskal Herria dira; hain zuzen ere, lurralde horiek Mugen Gaietik eta Baketik erakundeekin lotuta daude eta emakumeek jatorri politikoko gatazka armatuak nola bizi dituzten ulertzeko kasutzat baliatu dira.

Hala, ikuspegi feministarekin heldu diogu azterketa honi eta emakumeen esperientziak konplexutasun osoan integratzen dituen begirada sakon batetik kontatu ditugu gertatu diren egitateak. Irakurketak, sarritan, askotarikoak dira, dauden testuinguruak oso desberdinak direlako. Hala ere, orobat agerrarazi da arretaz entzuteak topaguneak eta hurbilak edo are komunak diren hautemateko moduak sortzen dituela, diferentziak gorabehera.

Horrenbestez, lan honen helburua da gatazkaren ondorengo etapen eraikuntza partekatuari narratibak, lekukotzak eta analisiak eskaintzea. Gainera, erreibindikatu nahi da beren pentsamenduekin, emozioekin eta ekintzekin historia partekatuaren protagonistak izan diren emakumeak aintzat hartzeko entzute-espazioak bultzatzen jarraitu behar dela.

Horretarako, lana bi ataletan banatu da: alde batetik, *Badakiguna*. Hau da, beste pertsona eta erakunde batzuek errealitate honen inguruan sortu duten ezagutzaren irakurketa bat. Bestetik, *Miaketa*, zeinak, bere izenak adierazten duen moduan, emakumeen lekukotzak biltzen baititu eta denboran eta espazioan zeharreko elkarriketa bat sortzeko txirikordatzen baititu.

Azkenik, azterketa hau *Memoria, ikuspegi feminista lokal-global batetik, bizikidetzak baketsua eraikitzeke tresna gisa* proiektuan kokatuta dago. Proiektua Baketik eta Mugen Gaietik erakundeen elkarlanetik sortu da eta Lankidetzaren Euskal Agentziaren funtsak jaso ditu.



BADAKIGUNA

3 rolak

Emakumeek gatazka-testuinguruetan daukaten zeregin aktiboa (edo, hobeto esanda, dauzkaten zeregin aktiboak) aintzatesteko eta testuinguru horietan pairatzen dituzten berariazko indarkeriak ikusgai egiteko helburua betetze aldera, azterketaren esparru teorikoan emakumeek historian zehar gutxienez bete dituzten roletako 3 jasotzen dira: sexu-indarkeriaren biktimak, bakezaleak eta borrokalariak. Jakina, errealitateak aukera-sorta hori gainditzen du eta, beraz, 3 rol horiek bakarrik azaltzea erabaki kontziente baten ondorioa izan da, azterketaren esparrua mugatzeko.

Sexu-indarkeriaren biktimak diren emakumeak

Gatazka armatuetan eta aurkako testuinguruetan, emakumeen kontrako indarkeria areagotu egiten da eta biktima nagusi bihurtzen ditu. Munduko leku guztietako urteetako historiak, gerrek eta ezegonkortasun politikoak erakutsi dute gizonek behin eta berriro erabiltzen dutela emakumeen eta nesken aurkako **sexu-indarkeria**. Teorialari feminista anitzek adierazi dute patriarkatuaren kontrol-adierazpenetatik muturrekoena dela sexu-indarkeria¹; alegia, emakumeen gorputza gudu-zelai bihurtzen duen **gerra-arma**² gisa eta botere-tresna³ gisa erabiltzen da sexu-indarkeria.

Gatazka-testuinguruetan sexu-indarkeria pairatzen duten emakumeek **zauri fisiko eta emozional handiei aurre egiten diete**: nahitaezko haurdunaldiak, sexu-transmisiozko gaixotasunak, baliabide ekonomikorik eza, etxeen suntsipena eta seme-alabak babesteko ezintasuna, besteak beste. Diskriminazioa eta desparekotasuna horrelako egoeretan biziagotu egiten dira eta emakumeentzat bakarrik erreserbatutako indarkeriak larriagotu egiten dira. Dena den, biktimizazioa saihestea, orokortzetik ihes egitea eta **emakumeak sufrirtzaile gisa** eta indarkeriaren hartzaile gisa **erakusten dituen ikuspegia gainditzea** erronka handia da⁴.

1. Irantzu Mendia Azkue, 11. orrialdea.

2. GUADALUPE CAVERO MARTÍNEZ (2021). Las mujeres en los conflictos y postconflictos armados: la resolución 1325 de la ONU y su vigencia hoy (17. or). Hemen eskuragarri: <https://www.inmujeres.gob.es/publicacioneselectronicas/documentacion/documentos/DE1865.pdf>

3. Carolina Jiménez Sánchez. 82. orrialdea.

4. Carolina Jiménez Sánchez. 83. orrialdea.

Emakume bakezaleak

Gizonen eta emakumeen arteko **sozializazio diferentzialak** gizonak bihurtu ditu tradizionalki gerren eta gatazken protagonista, eta emakumeak, berriz, egoera horietan biktima pasibo gisa agertu dira. Emakumeek beren sozializazioan jasotzen dituzten balioetako asko ezinbestekoak diren arren, bizitza lehenesten baitute eta erresistentziaz eta bakeaz hitz egiten baitute, azterketa honek sustatzen duen begiradak ulertzen du **gizonek eta emakumeek bai gerrarako bai bakerako gaitasuna daukatela**.

Nolanahi ere, emakumeek ezin konta ahala aldiz hartu dute ekimen bakezalea eta nahikoa da historian zehar sortu dituzten taldeen adibide bakar batzuk ikustea: *Women's International League for Peace and Freedom*, *Jerusalem Link*, *Women's National Coalition*, *Northern Ireland Women's Coalition* eta abar. Eta gatazka-testuinguruetan bakezale gisa aurrerapauso bat egitea eta biktima-estigma haustea erronka handia izan denean eta **egintza botereetsua** eskatu duenean ere hartu dute bakearen aldeko ekimena.

Emakume borrokalariak

Oso gutxi jakiten da gerren protagonistak izan diren emakumeei buruz, eta emakumeei gutxitan aitortzen zaie **beren idealak defendatzeko indarkeriazko egintza bat egiteko gaitasuna**. Historian zehar badaude adibideak erakusten dutenak emakumeen indarkeriazko egintzak beste kontu batzuekin lotutako motibazioei egozten zaizkiela, adibidez, emakumeek «mendeko izaera» dutelakoan gizon batek manipulatuak izateko erraztasunari.

Ohikoena da **emakumeen partaidetza armatua askapen-mugimenduetan eta gerrilla iraultzaileetan suertatzea**. Adibide ugari daude: El Salvador, Nikaragua, Kolonbia, Eritrea, Angola, Namibia, Sri Lanka eta Kurdistan, besteak beste. Baina, Guadalupe Caveró Martínezen arabera, «*emakume guztiek ez dute askatasunez erabakitzen borrokatzea*»⁵. Are gehiago, Irantzu Mendia Azkuek⁶ eta beste egile batzuek azaltzen dutenez, emakumeak, beren idealak eta taldearen interesak defendatzeko ez ezik, askotan bizirik irauteko estrategia gisa edo beste rol batzuk betetzeko eta beren patua aldatzeko ihesbide gisa sartzen dira talde armatuetan.

5. Guadalupe Caveró Martínez. 12. orrialdea.

6. 12. orrialdea.

Gatazkari buruzko oharra

Gerrarik ez dagoenean gizartea bakean dagoelako sinesmena hedatu da. Hala ere, **feminismoak sistema patriarkala eta haren indarkeria definitzen duen** heinean, **emakumeak gatazka etengabe batean bizi dira**. Are gehiago, bakeari buruzko azterketek 80ko hamarkadatik daramate «bake positibo» kontzeptua hedatzen, «bake negatibo» terminoari kontrajarrita; hain zuzen ere, adierazten du zuzeneko indarkeriarik ez egoteaz gain egiturazko indarkeriak eta indarkeria kulturalak ezabatzeko ere lan egiten dela.

«Bake positiboaren» ikuspegiak gatazketara askoz modu integralagoan hurbiltzea ahalbidetzen du eta motibazio politikoko gatazka baten adierazpen bortitzak agertu baino lehen, agertu bitartean eta agertu ondoren dauden egiturazko indarkeriak hartzen ditu aintzat. Ildo horretan, bake positiboak kontuan hartu behar duen egiturazko indarkeriaren eta indarkeria kulturalaren parte da sistema patriarkala⁷.

Azterketarako emakumeak

Ikerketa honek bi gatazka, Guatemalako eta Euskal Herriko, hartzen ditu kasutzat horietan emakumeen rola zein izan den ulertzeko, iparraren eta hegoaren arteko desberdintasunak ere kontuan hartuta. Helburua ez da hainbeste gatazketan sakontzea, baizik eta **emakumeek** testuinguru horietan **duten zereginari buruzko kontakizunak, edukiak eta ezagutza sortzen laguntzea**. Haien ekarpenak eta bizipenak konplexutasun osoan aitortu behar dira eta haien partaidetzaren garrantzia erreibindikatu behar da. Edo beste modu batean esanda:

Helburuak

- Emakumeek gatazka-testuinguruetan bete dituzten **rolak** identifikatzea.
- Emakumeek **gatazkaren ondorengo etapetan** izan duten zeregina aintzatestea.
- Emakumeek gatazka-testuinguruetan izan dituzten **elementu komunak** eta bizipen-elementuak aurkitzea.

Horretarako, elkarrizketa sakonak egin dizkiegu 11 emakumeri. Emakume horiek hautatzerakoan esperientzien askotariko irudikapena bermatu nahi izan dugu.

7. BAKETIK FUNDAZIOA (2024)



Miaketa

Elkarrizketa sakonen azterketaren helburua isiltasunetako batzuk haustea izan da, baina beren lekukotza eskuzabaltasunez partekatu dituztenen isiluneak errespetatzeko asmo irmoa ere izan dugu. Gainera, azterketak ahots guztiak biltzen ez dituen arren, modu sentiberan ekartzeko ahalegina egiten du.

Elementu nagusiak

Jarraian, azterketaren elementu nagusiak jasotzen dira laburki, baina komenigarria da ohartaraztea elementu horiek sintetizatzeko egin dugun ahaleaginean ñabarduren eta sakontasunaren aberastasuna galdu dutela.

Min gurutzatuak

Andrea García Gonzálezek *Calla y olvida* izenburuko bere liburuan (2023) sortutako terminoan inspiratuta, «min gurutzatuak» deritze gatazka-testuinguruetan familia-nukleoetan eta gizarte-ingurune hurbiletan izaten diren hausturei. Horrelako egoeretan, oso lotura sendoak dituzten zenbait pertsonak, hala nola ahaideek edo lagunak, kaltea jasaten dute gatazketan posizionamendu eta espazio desberdinak hartzeagatik. Min gurutzatu horiek bai Guatemalan bai Euskal Herrian bizi izan dituzte emakumeek, eta eragin handia izan dute haiengan, tradizionalki esleitu zaien rola dela-eta bizitza sostengatu dutenak izan baitira.

Belaunaldi arteko minak

Gloria Almira indigena guatemalarrak dioenez, emakumeak lehenik beren burua sendatuz ari dira parte hartzen, Guatemalan belaunaldi arteko trauma psikosozial handi bat dagoelako. «*Guk, gatazka horrekin ados*

egon zein ez, kolpeak hartu genituen eta trauma hori geure seme-alabei eman genien oinordetzan». Maiteri, 28 urteko gazte euskalduna, gauza bera gertatzen zaio: ETAk osaba hil zuen bera txikia zenean. Haren familia bake-prozesuetan aktiboki inplikaturatuta dago eta Martak oraindik galdetzen dio bere buruari berak hartutako erabakietako batzuk, hala nola zer ikasketa egin, propio bereak ote diren edo eman dioten oinordetzak markaturatuta ote dauden.

Nortasun propio baten bilaketa

Gatazkek emakumeei eragiten dietenean, gehienetan, beren familiak inoren laguntzarik gabe aurrera ateratzeko erronkari aurre egin behar izaten diote. Une horietan, gatazkek indarrez astintzen ditu eta, mina eta atsekabea sentitu arren, beste pertsona batzuk zaintzeaz arduratu behar dute eta zenbait beharren arteko oreka bilatu behar dute: diru-sarrerak sortu, segurtasuna eman, zaindu, beren idealak defendatu... Betebehar horien guztien artean galdera hauek azaleratzen dira: «nor naiz ni hau guztia gabe?» eta «zer egin dezaket sendatzeko eta aurrera egiteko?».

Gizonen luzapena

Emakumeen lekukotzak askotarikoak dira. Batzuetan, egun bera oso ikuspegi desberdinetatik narra daiteke. Dena den, kasu horietan ere, badago emakumeen arteko lotura bat. Errailetan sartutako beldurraz gain, emakume batzuk gatazkaren protagonista nagusiak izan diren gizonekin lotuta daude. Eta, emakumeak gizonen luzapentzat jotzen dituztenez, ondorio larriak pairatu dituzte (bizitzarako eskubidearen urraketa barne).

Sexu-indarkeria globala

Ez du axola Atlantikoaren zein aldetan dauden. Ezta zer gatazka-mota edo gerra-mota den ere. Errealitatea da sistema patriarkalak beti gordetzen duela emakumeentzako berariazko indarkeria bat. Kontakizuna «etsaien» eta «lagunen» logiketan sartzan denean ere badago indarkeria. Elkarrizketatutakoek lekukotzek horixe berresten dute. Emakume batzuek, gaur egun, gatazkek iraun bitartean indarkeria hori pairatu zuten beste emakumeei laguntzen diete.

Gatazka ikusezina

Iparreko eta hegoko emakumeek adierazten dute motibazio politikoko gatazkek ikusezin egiten dituztela emakumeek pairatzen dituzten indarkeria sistemikoak. Elkarrizketatuetako batek honela azaltzen du: «Une hartan Euskadin indarkeria terroristaz bestelako indarkeriarik ez zegoelako sentsazioa neukan. Ni, emakume gisa, ez nintzen inoiz sentitu, adibidez, Alacanten bizi nintzenean sentitzen nintzen bezala. Alacanten gauze bakarrik irtetearen beldur nintzen. Euskadin [...] emakume gisa ezer gertatuko ez zitzaidalako sentsazioa neukan. [...] Errealitatea ez da ezin zitzaidala ezer gertatu edo horrelako indarkeriarik ez zegoela, baizik eta beste indarkeriak gainerakoak itzaltzen zituela. Hain presente zegoen eta biztanleria hainbeste banatzen zuen, non besteaz ez baitzen hitz egiten. [...]. Dena zen gatazka».

Amen figura

Amaren figura indarrez agertzen da seme-alabak eta familia babesten dituen emakume gisa eta semeak borrokari eskaintzen dizkion emakume pairakor gisa. Semeak (gizonezkoak bakarrik) eskaintzea kasu desberdinetan gerta daiteke. Alde batetik, baliteke ama, ideal jakin batzuk defendatzeko, talde guztiaren onerako seme baten galera bizitzeko prest dagoen figura gisa agertzea. Bestetik, semeak eskaintzea semeok babesteko aukera bakartzat jotzen da.

Adibidez, Guatemalako gerran, sistema militarrean parte hartzea nahitaezkoa zen. Armadak kamioiak instalatzen zituen eta gazteak herrietan eta herrixketan bilatzen zituen. Gazte batzuek uko egin zioten eta, beren borondatez eta arrazoi ideologikoengatik, azkenean gerrillan sartu ziren. Hala ere, gerrak aurrera egin ahala, jazarpeneko eta nahitaezko desagertzeneko kasuek gora egin zuten. Hala, emakume askok, ama etsiek, semeak zerbitzu militarra egitera animatu zituzten, nahiz eta horrek esan nahi haien mentalitatea eta pentsaera aldatuko zirela; izan ere, desagertzenetik eta hilketetatik babesteko modua zela uste zuten.

Amak bizitzaren sostengatzaile gisa ere agertzen dira haien bikotekideak edo ahaideak desagertzen direnean, bizitza galtzen dutenean edo espetxeratzen dituztenean. Esleitutako estigma eta rol asko hausten dituzte gatazka-egoeretan egoera berri horiei aurre egiteko.

Gatazkan esnatzea

Jazarpenaren edo indarkeriaren ondorioz, ordura arte arlo pribatuan egon diren eta inolako partaidetza politikorik izan ez duten emakume askok kontzientzia hartzen dute eta espazio publikoa okupatu nahi izaten dute. Hori berdin gertatzen zaie emakume guatemalarreri eta euskaldunei.

Zerbitzariak

Konplexua da emakumeen rolek gatazka-testuinguruetan izaten duten aldaketaz hitz egitea; izan ere, emakumeak beste espazio batzuetara irteten dira eta gizonentzat bakarrik erreserbatuta dauden esperientzia batzuez jabetzen dira. Hala ere, orobat egia da emakumeei esleitutako roletako asko larriagotu eta areagotu egiten direla gatazka-testuinguruetan.

Horregatik, gatazka-testuinguruetan ere, emakumeak ez dira zerbitzari-roletik libratzen. Guatemalako gerran, badaude destakamentu militarrek non gizonek emakumeak bahitzen baitituzte destakamentua garbitu eta janaria presta dezaten. Euskal Herrian ere izan ziren gatazkan aktiboki parte hartu zuten gizonentzako janaria prestatzeaz arduratzen ziren emakumeak.

“Nire erabakia da”

Elkarrizketatutako pertsonetatik gazteenak bakarrik izan ditu bere kezkek, erabakiak eta militantzia-espazioak beste pertsona eta esperientzia batzuek markatuta egon ote direnari buruzko zalantzak. Gainerakoek argi eduki dute, bai emakume guatemalarrak bai euskaldunek, bakezaleek, politikariek, irakasleek, aktibistek, artistek... Defendatzen dute gatazkan izan duten zeregina eta hartu dituzten erabakiak beraienak bakarrik izan direla.

Etorkizunaren eraikuntza

Gatazkaren ondorengo etapa batez hitz egin daiteke elkarrizketatutako emakumeek, guatemalarrak zein euskaldunak izan, gatazka amaitu ez dela sentitzen badute? Nola hitz egin gatazkaren ondorengo etapez indarkeriak eragindako zauriek eta ondorioek bizirik badiraute? Senti al daitezke emakumeak gatazkaren ondorengo etapa batean bakea haiengana inoiz heltzen ez bada?

Elkarrizketatutako emakumeek ez dute beren burua letra larriz idatzitako historia horretan islatuta ikusten, ezta bake handian ere, ikuskera hegemonikoa nagusiki maskulinoa baita. Ez daude ezkututzen dituen historiaren barruan. Eta, hala eta guztiz ere, badira protagonistak. Izan ere, emakumeak jada ari dira zauriak sendatzen eta errealitatea eraldatzen, kontakizun berriak idazten eta bakeari ekarpena egiten. Baina nolakoa da bake hori?

- Topaketa txikiz osatutako bake bat da, jendeak aintzatespenaren eta minaren onarpenaren eskuzabaltasunarekin begietara elkar begiratzea dakarrena.
- Arlo komunitarioan introspektiboa den bakea da, trauma adierazten delako eta beste emakume batzuek berotasunez hartu eta biktima-roletik irtenarazten dituen begirada bat itzultzen dutelako.
- Memoria duen bake bat da, gertatutakoa gordetzen duelako eta kontakizunari ahots asko, oraindik hitz egiten ez dutenena barne, dakarzkionalako.
- Aurreko jakintzak eta haien transferentzia aintzatesten dituen eta horietaz fidatzen den bake bat da.
- Egunerokotasunean eraldaketa bilatzen duen bake bat da.
- Justizia sozialean eta berdintasunean oinarritutako sistema-aldaketa bat eskatzen duen bake bat da.
- Emakumeen zeregina, lidergoa eta politika feministak errebindikatzen dituen bake bat da.

ONDORIOAK

Emakume guatemalarren eta euskaldunen kontakizunak erritmoetan eta izendatzeko moduetan dira desberdinak. Emakume guatemalarek bizirik dirauten emakumeez hitz egiten dute, ez biktinez. Trauma aipatzen dute eta energia handia jartzen dute laguntzan. Emakumeen aniztasunari buruzko kontzientzia handiagoa daukate: landakoak, indigenak, hirikoak. Eta eliza eta herri indigenen askotariko kosmobisioak ere presenteago daude.

Emakume euskaldunen artean isilune gehiago eta airean bukatu gabe geratzen diren esaldi gehiago daude. Badago mina, emakume guatemalarren artean bezala, baina erakusteko lotsa handiagoa ere badago. Egiatan horretaz hitz egin ezingo balitz bezala edo hitz egiteko baimenik ez balego bezala. Pentsamenduak lehenik galbahetik pasatuko balira bezala.

Batzuk desberdintasun kulturalak izango dira. Iparreko eta hegoko begiradak. Beste batzuk, ziur asko, gatazka bakoitzaren berezko izaerarekin erlazionatuagoak egongo dira. Dena den, erraza da haien kontakizunak txirikordatzan direla ikustea. Elkarrekin norberaren esperientzia partikularren atzean dagoen beste gauza batez hitz egiten dutela. Eta hor deskubritzen ditugu: bizirik ateratzen diren emakumeak, jakintzen zaintzaileak, amak, bizitzaren sostenguak, hornitzaileak, ekintzaileak, zerbitzariak, borrokalariak, atzemaileak, politikariak, bakezaleak, poliedrikoak, konplexuak eta gorputza sistema patriarkalak zeharkatuta daukatenak.

Errealitatea ez dator bat arketipo garbiekin. Ez dago figura absoluturik, baizik eta aurkakoa zaien ingurune batekin etengabe komunikatzen ari den gorputz berean, emakume berean antolatzen eta hezurmamitzen diren sentipenak, rolak eta ekintzak. Eta gorputz hori, emakume hori, aldi berean kolektiboa da. Geu gara.

Proposamenak

Hori guztia kontuan hartuta, jarraian azterketaren funtsezko edukia jasotzen da, emakumeekin bidezko memoria bat eraikitzeko lanean jarraitzeko proposamen gisa:

Emakumeen esperientzietan **aniztasuna aintzat hartzea**, haien narratiba, bizipen eta ikuspegi desberdinak balioesteko.

Esperientzia batzuk hezurramitzeko modu eta begirada berriak sortzeko lagungarriak diren **jakintzak eta esperientziak biltzea**. Adibidez, azterketa honen kasuan, emakume guatemalarrak biktima gisa identifikatu beharreak bizirik dirauten emakume gisa identifikatzeak erakusten du trauma gainditzeko gaitasuna eta elkarri laguntzeko konpromisoa dituztela.

Entzuten diegun emakumeak zeharkatzen dituzten inpaktu kulturala eta ardatzak beti testuinguruan kokatzea. Kultura-aniztasunaren, askotariko zapalkuntza-ardatzen eta gatazka zehatzen izaeraren ondorioz kontakizunetan dauden desberdintasunak ulertuta, emakumeek testuinguru desberdinetan aurre egiten dieten erronka bakanak sakonago hautematen dira.

Emakumeen **homogeneizazioari** **ihes egitea** **eta** **gizaki diren** **aldetik duten** **konplexutasuna** **aitortzea**, **gizartearen** **barruan** **askotariko** **rolak** **eta** **funtzioak** **betetzeko** **gai** **baitira**, **genero-estereotipo** **arruntei** **erronka** **joz**.

Emakumeek **menderatze-egiturei** **erronka** **jotzeko** **egin** **dituzten** **borroken** **eta** **lorpenen** **historia** **ikusgai** **egitea**.

Emakumeak **protagonistak** **izan** **diren** **historia** **guztietarako** **tokia** **dagoen** **orain** **bat** **eta** **etorkizun** **bat** **defendatu** **eta** **sustatzea**, **genero-** **aukera** **tradizionalei** **erronka** **jotzen** **dietenean** **ere**, **denentzako** **ekitatezko** **eta** **justiziazko** **giro** **bat** **sustatuz**.

Azkenik, Gerda Lernerrek (2017) zioenez, «*Borroken eta lorpenen geure historiaz daukagun ezagutza-falta emakumeok mendeant mantentzeko modu nagusietako bat izan da*». Eta bakea eta etorkizuna eraikitzeko ezinbestekoa da historia horiek guztiak aintzatestea, emakumeak beraiantzat pentsatzen den horretatik irteten direnean ere. Denentzako aintzatespenaren etorkizun bat. Etorkizun sendagarri eta bidezko bat.

Emakumeen parte-hartzea memoriaren eraikuntzan, Euskadiko eta Guatemalako esperientziak.

2024ko Urtarrila



baketik



borborka



LANKIDETZARAKO ETA
ELKARTASUNERAKO
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACION Y
SOLIDARIDAD